



## **ILLUNBE – ELOSUA (2. etapa)**

- **0:00.** San Antoniotik irten eta Mintegi kaletik gora joango gara Artzamendi kaleko bidegurutzean dagoen frontoiraino, Toki-Ederreko etxien parian.
- Artzamendi kaletik aurrera jarraitu ezkerreko espaloiatik eta, lehenengo etxeetara heldu aurretik, ezkerrera irtetzen daben bide bat jarraituko dogu, marka zuri-berdeaz markauta, goiko trenbide bidera irtetzeko.  
Edo frontoi ostean, Mariaren Lagundia ikastetxearen hormaren alboko eskaileratetik igoko gara zuzen goiko trenbiderutz; eskailerak igotakoan, pista bat hartu eskuma aldera eta aldapa motz baina nahiko pikoak lehenagoko trenbidean utziko gaitu.
- Trenbidea zeharkatuta, beztekaldean, Aizemendi etxeko bidea eskumatan utzi eta ezker aldetik gorantz jarraituko dugu bide formal batetik. Txabola bat baino lehentsuago, itxitura baten aurrean, porlana laga eta ezkerretik goialdera doan mendiko bidea hartuko dugu, hain zuzen Ugasarri baserriko bide zaharra.
- Errepetidore bat izendakoaren kaseta bat lagako dugu gure eskuman eta aurrerago, itxitura bat pasatu bezain laster, bidearen eskuman Usoiturri (Ixiturri) daukagu, arkua daukan iturri landu bat, askarekin.
- Aurreratxoago, Soledadetik datorren bidea lagako dugu ezkerrean eta segituan pinuditik irten eta muino batean zelai garbi baten ondora irtengo gara. Hortik Ugasarri baserria begi bistan daukagu.  
Argindar kableen azpitik pasatuko gara, torreta baten aldamenetik. Parean, ezker aldean (ipar ekialdera), Ugabide eta aurrekaldean (ekialdera) Ugasarri, bertara joko dugu.
- **0:25.** Ugasarri baserri aurretik (hegoaldetik) pasatuko gara eta handik gora hiru itxitura ezberdin zeharkatuko ditugu, maldan gora ekialderutz. Eskuman dagoen pinudi txiki baten gainekaldera heltzen garenian, gure aurrean Alta Tensioko dorre bat ikusten dogula, bidea jarraituta 90º graduko errebuelta hartuko dugu eskuma aldera, hegoaldera, hegoaldeko mendi bizkarraren billa.
- Pinudi baten barrenetik mendi bizkarra hartu eta berehala, bidezidor moduko estu bat hartu bihar dogu ezker aldera pinuditik zehar; arantza eta sasi artean jarraituko dugu Ugasarrigaña edo Aitzapagola hartu arte. Han, tontorrean, pinuz inguratuta 89 mugarria dago.

**89. mugarria "Ugasarri-gaina".** Tontoretik pinuditik zehar Illunbe aldera joanda dago.  
Bertatik Galartza erreka, Antzuolako Galartza auzoa ("Txangala"), Illunbe aldia eta Miso erreka bistan daukagu.

- **0:50** Mugarritik, 30 bat metro atzera egin ekarri dugun bidetik eta iparraldera egingo dugu, Ugariaga (Ugarrixa) aldera, bideari jarraituz lehen kusi dogun argindarraren torreta billa. Lepo honetatik iparraldera jarraituko dugu, pixka bat ezkerrerutz joanda, zelai baten ertzera heldu arte, eta zelai baztarretik jarraitu itxitura topatu arte. Bertan, itxitura gainetik pasatzeko gertatuta dago eta pasatu ondoren aurrean daukagun zuhaitz multzo batera joango gara zelaia zeharkatuz, ganaduarekiko eta lurraren jabearekiko errespetuz.
- Zuhaitz ondotik, beste hesi baten eskumatik jarraituko dogu, txabola zuria ezkerrean utzita, beste muturrean zelaitik irten arte bide batera, argi indar poste baten ondoan. Bide hontan, aurrean daukagun beste itxitura bat berriro gainetik pasatu, gertauta dagoen tokitik, eta gure aurrean ikusten dogun argi indarraren beste poste bateraino egingo dugu. Hortik hiru bat metrora, itxitura baten kontra eta muga baten gain aldi, mugarria dago.

**88. mugarria "Kurutze txiki"**. Bertatik Ugariagazpikoa (Ugarrizapikoa) baserria, Galartza erreka eta Galartza auzoa bistan dauzkagu.

- **1:15**. Mugarriaren ondotik, muga egiten duen itxiturari ezkerrerantz jarraituz, pistara goaz, Ugariagazpikoa (Ugarrizapikoa) baserrirantz. Pistara sartzeaz bat agertuko zaigu beste mugarri bat, aldamenen tubo biribil baten antzerako bat daukalarik.

**87. mugarria "Ugariaga"** itxitura baten kontra dago, Ugasarri eta Ugabide baserriko pistaren kontra.

- Ugariagazpikoa (Ugarrizapikoa) baserriaren parean, pistaren beste aldean, lizar eta haritz ilara bat dago eta aurrera goazela seigarrenaren ostean, haritz baten ostean, Antzuolako 30. mugarria, Bergarako 86.a dena.

**86. mugarria "Ugariagazpikoa"**, baserri pare-parean dago, pistaren beste aldean dagoen zelai buruan, hesiaren kontra.

- Hormigoizko bidean aurrera jarraituz, Ugariagagañekoa (Ugarrizagañekoa) baserrira helduko gara, eta pistaren ezker aldean alberga bat dago.

**85. mugarria "Ugariagagañekoa"**, baserri pare-parean dago, pistaren beste aldean dagoen albergaren kontra.

Bertatik bertara, baserri ondotik Elosu eta Azkoitira doan errepidera irtengo gara.

- **1:30**. Errepidea beste aldera pasatu, garai bateko gurdi-bidea hartu eta Amezti aldera gorantz egingo dugu. Arantzaleku etxe ondotik pasatu ondoren bai ezkerretik, bai eskumatik, gorutz hartuta goiko pistara irtengo gara ur deposito baten ondora. Hemen ezkerrera hartuta betidanik Gorkara igotzeko erabili izan den bidean gora egingo dugu. Aurreratxugo beste bi bidearen bidegurutzera dago eta edozein bidetatik hartuta toki berberara joango gara: berriro bi bideak alkartzen diren tokian bertan 84. mugarria dago, gure eskuma aldera, itxituraren ondoan.

**84. mugarría "Otzaga (Otza)",** zelai baten itxituraren azpiko aldean dago, hesiaren kontra

- Gurdi-bide garbitik jarraituz, Bergara-Elosu errepidera iritsiko gara, punto honetan errepideak 180ºko errebuelta egiten duen tokian, errepidean Gorlarutz hartu eta berehala ezkerretik gorantz doan bidea hartuko dugu. Bide honetan gora egingo dugu, bihurtuneak eginez.
- Une batean, bide honek Hirutxaboletatik datorren Gorlako bidera eramango gaitu eta hemen eskuma aldera egingo dugu Gorla alderutz (PR markekin dago). Zuzen jarraitu eta erromara pasatu bezain laster harrizko hesi bat ikusiko dugu bidearen eskuma aldean. Hesi horren ostean, 83garren mugarría dago eroritako Ameztiberri baserriaren gertuan.

**83. mugarría "Ameztí",** harri hesi baten kontra dago, Hirutxaboletatik Ameztira doan bidearen azpiko aldean, Ameztiberri baserriaren 20 bat metrora.

- **1:55.** Berriro lehengo gurdi-bidea hartu eta gora jarraituko dugu. Errepidera iristean, Ameztí baserria baina goratsuago, gure bidearen jarraipena ikusiko dugu aurrez aurre, hamar bat metro beherago. Berau hartuta, apurka-apurka, erraz harrapatuko dugu Errezinategi gaina, Elosurako errepidean.

**82. mugarría "Errezinategi gaina",** zelai hesiaren kontra dago, Itxumendi aldera hartzen den bidegurutzearen ondoan.

- **2:15.** Mugarrí honen ondoan errepidea laga eta aurrean daukagun pinudiaren barrenetik Itxumendiko antenarantz joko dugu, itxitura eskuma aldean dugularik. Pinuditik iten eta Itxumendi gainera heldu aurretik, itxituraren kontra dago 81garren mugarría.

**81. mugarría "Itxumendi gaina",** hesiaren kontra dago, Itxumendi tontorrian dagoen Pol-Pol-eko buzoia baino 50m lehenago.

Aurrerago daude bertize geodesikoa eta Pol-Pol M.T. taldeak jarritako buzoitxoak. Loiola irratiko errepetidorea ere gertu-gertuan dago, itxituraren beste aldean.

- Itxituraren ondotik jarraituz, pinu artera joango gara berriz ere, muinotik jaisteko, eta berehala topatuko dugu 80garren mugarría.

**80. mugarría "Itxumendi gaina",** hesiaren kontra dago, Itxumendi tontorretik 60 m aurrerago, Altsasu elkartearen aldera.

- Jaisten hasi orduko, Altsasu elkartea ikusiko dugu aurrean eta harantz joango gara, galbiderik ez daukan bidexka batetik. Une baten, pasabide bitxia dago, bi itxituren artean, pertsona batendako justuan. Hura pasatuta, Irimoegiko iturrira helduko gara, Iturriberri eta Gorla arteko bide ondora.

- **2:30.** Bidea bestekaldera gurutzatu eta Altsasu elkartearen sail azpitik doan bidea (ekialdera) hartu eta 150 bat metrora, bidearen azpiko aldean depositu eta txabolatxo bat dare.

**79. mugarria "Erreka txiki",** erreka zuloan dago, depositotik 60bat m. beherago. Mugarria ikusteko, eskuma aldean dagoen hesia zabaldu, Erreka txiki beheko zulora jaitsi eta 60 bat metrora, sasi eta lahar artean 79. mugarria dago errekatik eskumara, 3bat mt. gorago. Referentzia bezela, erreka ezkerrekaldeko pinudiaren azpikaldeko marra jarraitu eta marra hortan dago mugarria, erreka eskumakaldian.

- **2:40.** Berrito bidera bueltatu eta beherantz jarraituz, lehengo txabola bat eta ondoren Bizi-Nahi elkarteko bordara helduko gara. Berdin bere aurrekaletik edo bere atzekaldetik Kortaberri eta Lutxurdio aldera doan bidea jarraituko dugu basoan zehar, beherantz, lehenengo hego aldera eta ondoren eki aldera, Kortaberri baserriaren gainekaldeko basotik zehar, Elosua eta Kortaberri baserri arteko hormigoi pista topatu arte, pago batzuen ondoan.
- **2:50.** Ezker aldera hartu, Elosurantz eta 100 bat metrotara bide gurutze batera helduko gara, Elosutik Kortaberri eta Lutxurdiora datorren pistaren bidegurutzera. Guk eskumatara, (ekialdera) hartuko dugu, Lutxurdiorantz, eta beste 75 bat metrotara gure ezkerrean beherantz doan bidea hartuko dugu, Aizpurutxoko bide zaharra hain zuzen, Lutxurdio baserria heldu aurretik.
- Bidea jarraituko dugu ekialderantz eta 15 bat minutu ondoren, Bergaraetxeberri baserri oste aldera helduko gara.
- **3:10.** Guk, Aizpurutxotik datorren hormigoi bide horri kasurik egin barik, baserriaren gain partetik pasatuko gara, iturri baten ondotik eta aurrera jarraituko dugu hego mendebalderantz, lau-lau bide batetik, Bergaraetxeberriko errotaren hondakineta.
- Bergaraetxeberriko errotaren ondotik pasatuz eta Kortaberri errekatxo gurutzatu ondoren berehala Pikunietara (Pikunitta) doan hormigoi-bidea topatuko dugu. Bertan ezker aldera hartu, beherantz, eta bidea jarraituz Urretxu-Azkoitia errepidera irtengo gara, Urola ibaiaren ondoan.

**78. mugarria "Echeverri-chara-barrena",** errekatxo bazterrian eta errepide ondoan, Antzuolarrak jarri berri dago. Benetako muga Kortaberri erreka eta Urola ibaiaren urak elkartzen diren puntuak, Antzuola, Bergara eta Azkoiti arteko muga markatzen du.

- **3:30.** GI-631 errepidea zeharkatu eta beste aldean dagoen zubitik Urola ibaia gurutzatu eta porlanezko bidea jarraituko dugu Artetxeberri baserrirantz, eta bertara heldu aurretik ezkerrean doan bide batetik Urolako trena izan zenaren trenbidera igoko gara, oraingo bidegorrira.

- Behin trenbidean iparraldera jarraituko dugu, Aizpurutxo aldera hain zuzen, tunel bat zeharkatuz (Ubola tunela). Eliza parean gaudenean, bidetxur batetik jaitsiko gara ibai ondora eta egurrezko zubi batetik pasatuz Aizpurutxoko autobus geltoki ondora, eliza parera eta taberna jatetxera joko dugu.

**77. mugarría "Aizpurucho",** GI-631 errepide ertzean, Etxezar etxe kontra dago. 26 km.a markatzen duen trafiko seinale baten kontra. "Azkoitia" eta "Vergara" hitzak grabatuta dauzka, gehi "1871" zenbakia. Bere azpi aldetik Zokotegi erreka pasatzen da Urola ibaiaren bila; erreka berak markatzen du bi herrien arteko muga.

- **3:45.** Eliza aurretik Azkoitirantz hartu (iparraldera) eta 20 bat metrotara, ezker aldetik, Aizpurutxo baserriko bidea irteten da. Aldapa igo baserriraino eta errebueltia jo ondoren, lehenengo eskumako biderik ez egin kaso eta 10 bat metro aurrerago, Elosuko bidea dan bidexka bat irteten da eskumatara, maila batzukin, gurdi-bide gainekaldetik gora. Bidexka honetatik laster irabaziko dugu altura eta bideak ipar aldera joko du beste bide zabalago batekin topo egin arte.
- Behetik gora datorren bidetik ezkerrera, gorantz (hegoaldera), jarraituko dugu. Aldapa igo eta bideak lau-lau jarraituko du Zokotegi errekaaren bila. Erreka ondoan erreka gora datorren hormigoizko pistarekin bat egingo dugu eta gorutz, mendebalderutz jarraitu.

**76. mugarría "chara-barren",** hemen inguruan zegoen, Zokotegi-erreka ondoan. Gaur egun desagertuta dago. Erreka bestekaldean Zokotegi izendako baserriaren hormak dare sastraka artian.

- **4:15.** Hormigoizko pista gorutz jarraituko dogu, lehenengo mendebaldera eta ondoren ipar aldera, Azkoiti aldeko Arostando baserriraino.
- **4:25.** Arostando baserri gainekaldian iturria aurkituko dogu, bere askarekin. Iturrian gainekaldetik bide zahar eta maldatsu bat igotzen dau mendi bizkarretik gora. Aldapa gogorrean eta gorantz, mendebaldera, bide zaharra jarraituz altura azkar irabaziko dugu Elosua pare-parian bista aurrian azaldu arte. Gaztelua aitzaren mendebal aldetik pasatu eta Elosuko kanposantu ondora agertuko gara, Iriaun Gaztelura doan bidera irtenaz.
- **4:30.** 75 mugarri bila joateko, bidea eskuma aldera hartuko dugu, Iriaun Gaztelu aitzeko bidea. Kanposantu kontra dagoen erromara bat pasatu, eta bidea jarraituko dugu lau-lau elkarte baten lursail sarreraraino. Elkarte horren sail ezkerretik, itxitura baten gainetik pasatu eta zelaia zeharkatuz apurtutako harrizko gurutza baten aurrera helduko gara.

**75. mugarría "Gaztelu"** eskumakaldian dago, elkarteko hesiaren kontra, Iriaun Gaztelu deitutako paraje honetan.

- Mugarría ikusi ondoren, atzera egin beharko dugu, lehen ekarritako bidetik, kanposantu aurreraino, eta bidea jarraitu Elosuko San Andres eliza aurreraino. Bertan iturria dago, harrizko aska eder batekin.

**74. mugarria-“Lizardi”** iturri horren aurrean dago, ekarri dugun bidearen eskuma aldean, hesi baten ondoan

- **4:40.** Hemen amaitzen da ibilaldi zati hau, Elosua auzoan, San Andres eliza, frontoia eta Iriaun baserri aurrian, bertan taberna eta jatetxea direla.

Bergara, 2013 otsailak 3